



## **LAN-ESKAITZA**

### **ERALDAKETA EKOSOZIALERAKO PROGRAMA KUDEATZEKO Teknikaria**

#### **1.- Lanpostuaren izena**

**Eraldaketa Ekosozialerako programa kudeatzeko teknikaria**

#### **2.- Kontratazio-erregimena (administrazio publikoa)**

- **Administrazio publikoko lanpostua** (deialdiaren oinarrien arabera: bitartekoa / aldi baterakoa / interinitatea / lan-kontratua)
- **Lanaldia:** %100 (lehentasunez)
- **Lanlekua:** Debagoiena (udalerrri eta eskualde mailako jarduera)
- **Inplikaturako erakundeak:** Mankomunitatea, udalak, eskualdeko eragileak arlo ekosozialekoak, hezkuntza ekosistema, enpresa-sarea, gizarte-eragileak, komunikazio arloko eragileak, kooperatibak

#### **3.- Lanpostuaren helburua**

Berrikuntza Ekosozialerako programak Debagoieneko Mankomunitatearen baitan jardungo du, honako egiteko hauek aurrera eraman beharko ditu:

##### **A. ANALISIA, DIAGNOSTIKOA ETA EZAGUTZA SISTEMATIZAZIOA**

Eskualdeko egoera ekosozialaren (energia, klima, biodibertsitatea, ekonomia, zaintza, desberdintasun sozialak, mugikortasuna eta antzeko arloak) azterketa eta diagnostikoak diseinatu, koordinatu edo kontratatzea.

Eskualde mailako adierazle-sistema bateratu bat proposatu eta garatzea, ingurumen- eta gizarte-adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak uztartuz.

Datu publikoen ustiapena eta analisia egitea (udal, foru eta autonomia mailako iturriak), eta beharrezkoa denean kanpo-aholkularitza teknikoak koordinatzea.

Urteko edo aldizkako egoera-txosten estrategikoak prestatzea, erabaki publikoetarako oinarri tekniko gisa.

Ezagutza sortzea eta sistematizatzea, eskualdeko eragileen eskura jarritz.

## **B. GOBERNANTZA KOLABORATIBOA ETA DINAMIZAZIOA**

Eraldaketa Ekosozialeko Eskualde Kontseiluaren funtzionamendu tekniko bermatzea: bileren prestaketa, dinamizazioa, dokumentazioaren elaborazioa eta aktak.

Kontseiluaren lan-planaren proposamena eta urteko memoriaren idazketa koordinatzea.

Lan-mahai tematikoak edo prozesu espezifikoak aktibatzea, beharrezkoa denean.

Erabaki-prozesuen jarraipena eta trazabilitatea bermatzea.

Proiektuen erakusleioa egikaritzeko beharrezko kudeaketak burutzea.

Gobernantza kolaboratiboaren metodologiak aplikatzea eta hobetzea, beste lurralde batzuetako esperientzia berritzaileak erreferentzia hartuta (hala nola ArantzazuLAB-en gisako esperientziak).

Eskualdean sortzen diren gai arlo ezberdinetako mahaietan parte hartu, eta bertako informazioa Kontseiluak onartu beharreko gaiekin uztartu, dokumentazioa prestatu

## **C. PROIEKTUEN IDENTIFIKAZIOA, DISEINUA ETA SUSTAPENA**

Eskualdeko eragile publiko, sozioekonomiko eta komunitarioek proposatutako ekimen eta proiektuak jaso eta aztertzea.

Proiektu-fitxa estandarizatu bat garatzea, proiektuen helburuak, inpaktua, bideragarritasun tekniko-ekonomikoa eta finantzaketa-aukerak jasoko dituenak.

Kontseiluari proiektuen balorazio tekniko aurkeztea eta sustatu beharreko ekimenetan laguntza tekniko ematea.

Proiektu estrategikoen portafolio egituratua kudeatzea.

Dirulaguntza eta finantzaketa-lerroen identifikazioa eta jarraipena egitea, bereziki trantsizio berde eta sozialarekin lotutako deialdietan.

Proiektu estrategikoetan kanpo-eragileekin lankidetzat sustatzea (unibertsitateak, ikerketa-zentroak, ekonomia sozialeko sareak...).

Oharra: Proiektu bakoitzaren exekuzio operatiboa dagokion erakunde edo arduradunari egokituko zaio; teknikariak koordinazio eta laguntza estrategikoa emango du.

## **D. SARETZE INSTITUZIONAL ETA SOZIOEKONOMIKOA**

Eskualdeko udalen arteko koordinazio tekniko indartzea, berrikuntza ekosozialeko arloetan.

Ehun sozioekonomikoarekin eta herri-eragileekin harreman egituratuak garatzea.

Ikerketa- eta ezagutza-zentroekin lankidetzat-hitzarmen edo lan-esparruak sustatzea.

Eskualdeko eragileen arteko elkarlan-proiektuak erraztea eta konektibitatea handitzea.

Beste administrazio publikoekin harreman teknikoak artikulatzea, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundia-rekin eta autonomia mailako erakundeekin.

#### **E. EBALUAZIOA, JARRAIPENA ETA ERAGINAREN NEURKETA**

Garatzen ari diren proiektuen jarraipen-sistema diseinatu eta aplikatzea.

Gizarte- eta ingurumen-inpaktua neurtzeko adierazle-sistema aplikatzea.

Proiektuen ebaluazio-txosten teknikoak prestatzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.

Beharrezkoa denean, kanpo-ebaluazio prozesuak aktibatzea eta koordinatzea.

Eskualdeko egoera ekosozialaren bilakaeraren jarraipen periodikoa egitea, politika publikoen eraginkortasuna baloratzeko.

#### **F. GARDENTASUNA, KOMUNIKAZIOA ETA KONTU-EMATE PUBLIKOA**

Bulegoaren jardueren eta proiektuen garapenaren inguruko informazioa publiko egitea, indarrean dagoen gardentasun-araudiarekin bat (bereziki 1/2023 Legea, Euskadiko Gobernu Onari eta Gardentasunari buruzkoa).

Urteko memoria publiko bat prestatzea, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta identifikatutako erronkak jasoz.

Herritarrei zuzendutako aurkezpen, jardunaldi edo kontu-emate saio publikoak antolatzea.

Ikerketa, diagnostiko eta ebaluazioen emaitzak eskuragarri jartzea, formatu ulergarri eta ireki batean.

Parte-hartze prozesu irekiak diseinatu eta dinamizatzea, deliberazio informatua eta komunitatearen inplikazioa sustatzeko.

#### **G. BESTE FUNTZIO OSAGARRIAK**

Mankomunitateko zuzendaritzak edo organo eskudunek antzematen dituzten unean uneko beharrak ahalbidetzeko laguntza ematea.

Berrikuntza, metodologia eta joera berrien inguruko eguneraketa profesional jarraitua bermatzea.

### **5) Derrigorrezko baldintzak (betebeharrekoak)**

**A) Titulazioa (nahitaezkoa)** Graduak, Diplomaturak, Ingeniaritza Teknikoko edo Arkitektura Teknikoko unibertsitate-titulua

## **B) Euskara (nahitaezkoa)**

- **Euskara: C2 / 4. Hizkuntza Eskakizuna (Ez badago, 3HE onartuko da)**

## **C) Esperientzia (nahitaezkoa)**

- Gutxienez 1 **urteko esperientzia** proiektuak kudeatu, koordinatua, dinamizatu eta ebaluatzen

## **D) Gaitasun teknikoak**

- Diagnostiko sozioekonomikoa egiteko gaitasuna (datuen bilketa, analisia, interpretazioa)
- Dokumentu estrategikoen idazketa eta egituraketa (planak, txostenak, memoriak)
- Eragileekin lan egitea: koordinazioa, dinamizazioa eta kontraste-prozesuak
- KPI eta jarraipen logika ulertzea (adierazleak, aginte-koadroa, ebaluazioa)

## **6) Baloraziozko merezimenduak**

### **A) Prestakuntza osagarria**

- Ingurumena eta Trantsizio Energetikoa Masterra
- Ingurumen Zientzietako Unibertsitate Masterra
- Energia berriztarrien inguruko prestakuntza
- Hiri Mugikortasun Adimentsu eta Iraunkorreko Unibertsitate Masterra
- Energia Sistema Adimendunak
- Ekintzailtza eta Berrikuntza Irekia - MEINN
- Ekonomia Sozial eta Solidarioan Masterra
- Plangintza estrategikoan eta ebaluazioan espezializatzea
- Parte-hartzeari eta prozesuak errazteari buruzko prestakuntza
- Lankidetzazko Gobernantza
- Politika publikoetako masterra / kudeaketa publikoko prestakuntza
- Parte-hartze eta fazilitazio metodologietan prestakuntza

### **B) Esperientzia espezifikoak**

- Datuekin benetako **diagnostiko sozioekonomikoak** egin izana.
- **Eragileen mahaiak** dinamizatu izana (mugikortasun mahaiak, energia mahaiak, elikadura mahaiak, ...).
- **Proiektuen gidaritza edo lidergoa** eraman izana
- **Proiektuen bideragarritasunean** jardun izana, eta beraien segimendua egiteko adierazle eta aginte-koadroak egin izana
- **Finantzaketa publiko eta europarraren oinarriak** (trantsizio berde eta sozialarekin lotutako programak).
- **Zuzenbide administratiboan** jakintza (administrazio publikoan jardun izana)

- Gaitegi espezializatuan ezarritakoekin zerikusia duten lanetan jardun izana

### **C) Tresnak eta gaitasun digitala**

- Excel/Sheets maila aurreratua
- Aurkezpenak (PowerPoint/Slides) eta dokumentazio profesionala
- Datuen bistaratzea (Power BI edo antzekoa) (*baloragarria*)

## **7) Hautaketa-prozesua (administrazio publikoan egokitua)**

Hautaketa-prozesuak, deialdiaren oinarrien arabera, honako faseak izan ditzake:

1. Merezimenduen balorazioa (lehiaketa)
2. Proba teknikoa (oposizioa)
3. Elkarrizketa egituratua / gaitasun-proba (balorazio osagarria)

## **8) Ebaluazio-irizpideak**

### **A) Merezimenduak – %20**

- Esperientzia egiaztatua aurrez adierazitako gaietan: **%10**
- Prestakuntza osagarria egiaztatua: **%10**

### **B) Proba teknikoa – %55**

- Gaitegi orokorrean oinarritako test froga (20 galderako galdetegia)
- Froga praktikoa (gaitegi espezifikoan oinarrituta) edo test froga (oraindik zehazteke baina [www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus) web orrialdean adieraziko da)

### **C) Elkarrizketa – %25**

- Koordinazio eta dinamizazio gaitasuna
- Idazketa eta komunikazio argitasuna
- Administrazio publikoaren testuinguruan lan egiteko egokitasuna
- Lidergo teknikoa (politika/eragile anitzekin)

## **9) Dokumentazioa (aurkeztu beharrekoa)**

- NAN / identifikazioa
- Titulu akademikoa (edo baliokidea)
- Euskararen 4PL egiaztagiria (Horren ezean 3HE egiaztagiria)
- Lan-bizitza eta/edo esperientzia egiaztatzen duten ziurtagiriak
- Curriculum Vitaea (Europass edo antzekoa)
- Prestakuntza osagarrien egiaztagiria
- Administrazioak eskatzen dituen gainerako agiriak

## **10) Beste alderdi batzuk**

Lanpostua betetzeko **mugikortasuna** (Debagoiena barruan) baloratuko da

- Interes berezia: **lankidetzaren publiko-pribatua**, prestakuntza-ekosistema, eta enplegu politikak

**11) LANBIDE bidez egiten den hautaketa prozesua gainditzen duten hautagaiek, dagozkion tasak ordaindu beharko dituzte hautaketa prozesuaren hurrengo ariketetan parte hartzeko. Informazio gehigarria, [www.debagoiena.eus](http://www.debagoiena.eus) web orrialdean argitaratuko da, azterketaren inguruko informazioarekin batera.**